

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

2022-2024 Dirulaguntzen plan estrategikoaren laugarren aldaketa

Aguraingo udalbatzak, 2024ko uztailaren 18an egindako ohiko bilkuran, 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoaren laugarren aldaketa hau onetsi zuen:

1) Aldaketa-proposamena onartzea, honela idatzita:

Arloa: euskara, hezkuntza, kultura eta kirolak.

Diru laguntza lerroa: pertsona partikularrek euskara ikasteko dirulaguntzak.

1. Helburu estrategikoak	Aguraingo biztanleek eta Udalarentzat zerbitzuak ematen dituzten langileek euskara ikas dezaten laguntzea
2. Eragindako eskumen-arloak eta laguntzen xede diren sektoreak	HABEk homologatutako zentroetan euskara ikastaroak egiten dituzten pertsona fisikoak, honako kolektibo hauetakoak: herritarrak oro har
3. Helburu espezifikoak eta aplikazioarekin lotu nahi diren ondorioak	Euskara-ikasketak egiten dituzten pertsonen ekonomikoki laguntzea
4. Hori lortzeko behar den denbora-eremua/epea	2021-22/2022-23/2023-24
5. Hori egiteko aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak	Urte anitzeko programazioa 2022ko ekitaldia: 10.000 euro 2023ko ekitaldia: 10.000 euro 2024ko ekitaldia: 10.000 euro
6. Ekintza-plana: hitzarmen bidezko dirulaguntzen lerroa, eskubide eta betebeharrekin arautzen duten oinarriak ezartzen dituen	Deialdiaren xedea eta helburua, onuradunak, hartzaileak eta parte hartzeko baldintzak, aurrekontu-zuzkidura, balorazio-irizpideak, baztertzeko irizpideak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, prozedura, onuradunen betebeharrak, diruz lagun daitezkeen gehieneko zenbatekoa, justifikazio-metodoa Lehentasunezko egutegia: ikasturtearen arabera
7. Jarraipen-araubidea, etengabeko ebaluazioa eta planaren helburuekin lotutako adierazleak	Ikastaroaren kostuaren eta ordainketaren, bertaratzearen eta aprobetxamenduaren frogagiria (oharrak) Adierazleak: <ul style="list-style-type: none">• Eskatera-kopurua• Emakiden kopurua• Ukoen kopurua• Emandako kreditua, guztira
8. Emakidaren araubidea/modalitatea	Norgehiagoka
9. Onuradunak	Pertsona fisikoak: herritarrak, oro har
10. Deialdiaren oinarrietan aurreikusten al da erakunde eskatzaileek berdintasuna benetan lortzeko jarduerarik?	BAI X EZ Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zein: <ul style="list-style-type: none">• Diskriminazioa dakarten proiektuak baztertzeari• Aukera-berdintasuna sustatzen duten proiektuen balorazioa
11. Eragindako aurrekontu-aplikazioa (k) eta zenbatekoa (k)	10.000 euro (335.480.001 aurrekontu-partida) – Euskara ikasteko dirulaguntzak

2) Aldaketa hori ALHAOn, udalaren webgunean eta Aguraingo Udalaren iragarki taulan argitaratzea.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Agurain, 2024ko uztailaren 22a

Alkatea

RAUL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR